

Industriaren etorkizuna energia eta osasunean

MCC taldea, Asian eta Europako ekialdean egiten ari den negozioen aldeko ahalegina baztertu gabe, negozio esparru berriak identifikatzeko jarduera plana garatzen ari da. Baliteke negozio horiek energiari eta osasunarekin zerikusia duen guztiari lotuta egotea.

DANIEL UDALAITZ

AZKEN HILABETEETAN Mondragón Corporación Cooperativa Euskal Herriko Talde ahaltzuaren inguruko ia informazio guztiak atzerrian lortzen ari den hedapenaren ingurukoak izan dira. Hedapen hori Asia eta Europako ekialdean gertatzen ari da, baina, bereziki, Txinan. Horrez gain, Errusia

zein Indiara begira egindako proiektuak lantzen ari da. Eta, hori garrantzizkoa eta diru kutxen ikuspuntutik oso errentagarria izanagatik ere, ez du ematen kooperatiba taldearen barruan gertatzen ari den gauzarik inportanteena denik. Taldearen industria sailaren etorkizuna da

garrantzitsuena, baita kezkarriena ere. Ondorioz, gogoeta eta bilera ugari eragile izaten ari da. Konfiantza handia dago finantza sailaren egoera eta eboluzioan –Euskadiko Kutxa, Lagunaro eta abar–, baita merkataritza banaketarako sortutako sailarenean –Eroski– ere. Hala ere, industria

MCCk enpresa ireki du Txinan, Errusia eta Indiako proiektuak aldiz, motelago doaz.



Aurten 2.000 enplegu izango ditu Txinan

MCC Taldeak aukeratu dituen herrialdeetako bat da Txina. India eta Errusia ere hautatu dituzte, baina horietarako planak motelago doaz. 2008. urte berri honetan, 14 produkziogune izango ditu Txinan, eta 2.000 enplegutik gora. 2010. urterako kalkuluen arabera, 18 produkzio enpresak funtzionatuko dute, eta 3.000 langile baino gehiago izango dira. Hori lortzeko, 100 milioi eurotik gora inbertituko dira.

Aurreko azaroan, MCCk Txinako Kunshan hirian, Shanghaitik hurbil, industria parke bat inauguratu zuen. Lau kooperatibak eta 650 langilek dihardute. Parke horren lehen faseak 15 milioi euroko inbertsioa eskatu du. 85.000 metro koadroko eremu urbanizatu du, eta lau kooperatibaren filialak hartzen ditu: Orbea, Oiarso, Orkli eta Wingroup-Dikar. Egun, bigarren fasean, Batz-en, Fagor Industrial-en eta Fagor Arrasate-ren pabiloiak eraikitzen ari dira. Horien jarduera aurtengo lehen

seihelekoan hasiko da. Hirugarren fasean, beste bost enpresa ezarzteko dago aurreikusita.

Parkeak, halaber, euskal base-riren egiturako eraikin bat dauka. 1.200 metro karratu ditu, hiru solairutan banatuta dago eta elkartzeko zein biltzeko balio du. MCCk, egun, beste hamar produkziogune ditu Txinako hainbat lekutan, eta, horietan, 1.500 pertsona inguruk egiten dute lan. Kunshan-en lau filialei Irizar Tianjin, Copreci China, Dakar-Ningho Wingroup, Fagor Automation, Shanghaiko Fagor Cookware eta Nantong Huarong gehitu behar zaizkie.

Kooperatibako arduradunen ustez, Txinan ezarritako industrialde eredu hori ez da bakarrik baliagarria munduko zona horretarako. Horregatik, antzeko ekimenak beste eremu batzuetan gauzatzea aztertzen ari dira, Errusian edo Indian, adibidez. Horietan duten presentzia handia ez izan arren, etorkizun handiko merkatua dute.

sailaren etorkizuna ez da hain argia, eta, gaur egun, lan eta kezka iturri handiena da kooperatiba taldeko arduradunentzat. Ondorio hori ateratzen da, behintzat, aldizkari honek lortu dituen azken informazioetatik, eta, aurreko udaz geroztik presidente berria denak, Jose Maria Aldekoak, jendaurrean egindako azken agerraldietan adierazitakoetatik.

Produkzio modua aldatu

Aurreko urriaren amaieran, MCCko presidentek Bilboko Finantza Elkartearen hitz egin zuen. Haren esaldi bat deigarria eta harrigarri samarra izan zen bertaratuakoz, ondo baitakite zein den euskal kooperatiba taldearen egoera. "Gaizki ibiliko gara ez badugu aldatzen gure industria saila", esan zuen Aldekoak. Jakina denez, Fagor da industria sail horren ikurra. MCCn uste dute ez dela aski hazi, negozio gehiago egin eta diru gehiago irabaztea, euskal kooperatiba garran-

tzitsu horren sorrerako joerari leial izateko. Horrekiko zintzoa izateak enplegua bere gune naturalean, Euskal Herrian, garatzea eskatzen duela pentsatzen jarraitzen dute.

Horregatik, Asia eta Europako ekialdeko negozioen alde egiten jarraitzen badute ere, oraindik kezka eta erronka handiagoa dute: hemen enplegua sortzea, industria sailaren bitartez. Eta, horretarako, industria sailaren etorkizuna argitzeko ahaleginak egin behar direla irizten diote. Horrenbestez, Euskal Herriko produkzio egiturak progresiboki aldatu beharko dituzte, eta balio erantsi handiagoko zereginetarantz jo. Gainera, orain arte presentziarik izan ez duten hainbat sektoreen alde egin beharko dute.

Hain zuzen ere, euskal kooperatiba taldeak oraindik gauzatu gabe dituen zereginetako bat jarduera industrialaren alor berrietan murgiltzea da. Bilboko Finantza Elkartearen emandako hitzaldian, Aldekoak hau

MCCn uste dute ez dela aski hazi, negozio gehiago egin eta kooperatibaren sorrerako joerari leial izateko

esan zuen: "Onartu behar dugu orain egiten duguna orain dela hamarkada bat baino gehiago egiten genuen gauza bera dela; orain, askoz hobeto egiten dugu, baina gauza bera da". Horregatik, orain, MCCren egitura guztiak, negozio berriak identifikatzen ahalegintzeko jardura plan bat gauzatzen ari dira. Badirudi negozioa egiteko aukera eman lezaketen bi sektore identifikatuta daudela: energia eta osasuna.

2007an salmentek %22 gora

Oraindik goiz da iazko ekitaldi amaitu berriari buruz datu ofizialak emateko. Guztiarekin ere, beste behin, MCC Taldeak 2007an lortutako emaitza ekonomikoak ikaragarriak izan dira, inoiz izandako onenak. Hori ondorioztatzen da urteko lehen bederatzi hilabeteetako datuetatik. 2007. urtearen amaierako kalkuluen arabera, bazirudien fakturazioa %8 inguru handituko zela. Oraingo kalkuluek, berriz, kopuru hori nabarmen gainditu dela adierazten dute, %22 ingurukoa baita. Horrek esan nahi du Taldeak guztira iaz saldutakoa 16.000 milioi eurotik gorakoa dela; 2006an baino ia hiru mila gehiago. Eta egoera bikain horretan ez da bakarrik erabakigarria izan Caprabo-ren akzioen %75 Eroskiren egituran sartu izana, gainerako negozioak ere oso ondo joan baitira.

Euskal kooperatiba taldearen enplegua, 2007aren amaieran, 86.000 ingurukoa zen; 2006an, berriz, 81.880 ziren. Filosofia kooperatibistaren ikuspuntutik, esan beharrekoa da une honetako enplegatuetatik 30.000 baino ez direla kooperatibistak. MCCren helburua hurrengo bost urtean buruan langile guztien %70 bazkide izatea da, edo, horretarako arazo juridikoak dituztenen kasuan, nolabaiteko lotura izatea, behintzat, bakoitzaren enpresaren kudeaketa eta etekinekin. ■